

Tau Baskonia ♦ Barçak eskaintza baskonista berdintzeko epea du hilaren 25a arte

Estellerrek sinatu egin du

Tauk ACBra bidali du jokalariaekin izenpetutako kontratua

Agentziak / Gasteiz

ROGER ESTELLER ez da oraindik Tau Baskoniako jokalaria, baina izateko beste urrats bat egin du. Izan ere, Europa Press agentziak atzo zabaldu zuenez, eskolta kataluniarrak datozen lau denboraldietan —beste bat ere aukeran izango du— Gasteizko taldean aritzeko kontratua sinatu du, eta gainera, Josean Kerejeta agintari baskonistak alde biek izenpetutakoa bidali du ACBra, gauzatutakoaren berri izan dezan.

Hala ere, zerbait gehiago falta da oraindik. FC Barcelonak Esteller erosteko lehen-tasuna du, eta horregatik, hilaren 25a arteko epea du eskaintza baskonista berdintzeko. Dena den, azken asteetan jokalariaekin izandako negoziaketan bistan utzi du bi urtetik gorako proposamenik egiteko asmorik ez duela, eta beraz, ezuste nahikoa izango litzateke orain Kerejetaren eskaintza berdinduko balu. Dena den, aintzat izan behar da Aito Garcia Reneses Barçako entrenatzaileak behin eta berriz esan duela Esteller «osagai ezinbestekoa» dela datorren denboraldiko taldeari begira.

Esteller fitxatzea izan da Kerejetaren helburu nagusia iragan denboraldia amaitu

zenez geroztik, eta orain arte ikusitakoaren ondoren, lortu egingo duela dirudi.

Javi Rodriguez, bigarren basea

Beste alde batetik, Salva Maldonado entrenatzaile baskonistak Javi Rodriguez harrobi baskonistako jokalaria baiezatu dio lehenengo taldeko bigarren basea izango dela datorren denboraldian Elmer Bennetten ondoren. Rodriguezek esan du «erronka zaila» izango dela eta «heldutasuna nahiz esperientzia» lortzea espero duela Bennett bezalako base baten ordezkoa izanik.

Gainera, zenbait informazioen arabera, Kerejetak itxi egin du Giorgios Karagoutis pibotaren erosketa (2,09 metro eta 23 urte), behin Greziako Federazioan ehun milioi pezetako diru kopurua utzi ondotik. Dena den oso litekeena da jokalaria greziarra lortzeko bidean baskonistek aurkari indartsua izatea: nor eta Sergio Scarioloren Real Madrid!

Karagoutis Panionios Greziako taldeko pibota izan da, eta merkatu komunitarioak uda honetan eskaintzen duen *harri-bitxi* onenetako bat dela diote aditu guztiek. Scariolok berak ere, nonbait, ederki daki.

hirukoak

Glen Ricek Los Angelesen jarraituko du

Zurrumurruak zurrumurru, Los Angeles Lakers taldeko ordezkariak Glen Rice hegalekoari kontratua berritu diotela eta taldean jarraituko duela baieztatu zuten atzo. 7 milioi pezetako kontratua (1.100 milioi pezeta, 440 milioi libera) sinatu du Ricek urtebeterako.

Zhizhi txinarrak ez du uste NBArako joateko modurik izango duenik

Dallas Mavericks taldeak aukeratu du asteon Wang Zhizhi txinarra (2,12 metro eta 115 kilo) bere talderako, *draft*-eko bigarren saioan. Jokalaria bera harrিতa dago albistearekin —telebistaz jakin zuen—, eta ezkor ere bai ez duelako uste bere egungo taldeak —Chinese Army Rocketsek— NBArako joaten utziko dionik.

'Piculin' Ortiz izarra oraindik Puerto Ricon

Puerto Ricoko Federazioak atzo jakinarazi zuen selekzioarekin San Juango aurreolimpikoan nortzuk ariko diren. Zereendako izen nagusia Jose *Piculin* Ortiz da, Barcelona, Real Madrid eta PAOKeko jokalaria ohia. Onenen artean jarraitzen du Puerto Ricon, egun Cangrejeros de Santurce taldean.